Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

2167

AGINDUA, 2011ko apirilaren 15ekoa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika eta Tolosako barruti judizialetako Zerbitzu Orokor Prozesal Erkidearen eta Zuzeneko Laguntza emateko Unitate Prozesalen Justizia Administrazioaren Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoen eskakizun bereziko lanpostuak betetzeko hizkuntzagatiko berariazko lehiaketara deitzeko dena.

Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen 5.2.a) artikuluak euskal herritarrei aitortzen die Administrazioarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.

Halaber, bere 6.1 artikuluaren arabera, herritar guztiei aitortzen zaie, Autonomia Erkidegoaren lurraldean, herri-administrazioarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta beren aukerako hizkuntza ofizialean hartuak izatekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden (2011ko apirilaren 14ko EHAA) Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika eta Tolosako barruti judizialetako Zerbitzu Orokor Prozesal Erkidearen eta Zuzeneko Laguntza emateko Unitate Prozesalen Justizia Administrazioaren Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoen eskakizun bereziko lanpostuak hutsik daude. Lanpostu horiek aurrekontu-zuzkidura dute eta horiek betetzea beharrezkotzat jotzen da zerbitzuaren betebeharrei erantzuteko.

Beraz, egokitzat jotzen da horiek berariazko lehiaketan deitzea, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 23ko 19/2003 Legearen VIII. Tituluan eta Justizia Administrazioko Funtzionarioen Sarbiderako, Lanpostu Hornikuntzarako eta Lanbide Sustapenerako Arautegia onartu zuen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuko 43. artikuluan eta hurrengoetan eta bere Xedapen Indargabetzaile Bakarrean ezarritakoari jarraituz.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

2167

ORDEN de 15 de abril de 2011, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se convoca concurso específico en razón de idioma para la cobertura de los puestos singularizados de los Cuerpos de Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa y Auxilio Judicial de la Administración de Justicia del Servicio Común Procesal General y de las Unidades Procesales de Apoyo Directo de los partidos judiciales de Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika y Tolosa.

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera, reconoce en su artículo 5.2.a) el derecho de los ciudadanos del País Vasco a relacionarse en euskera o en castellano oralmente y/o por escrito con la Administración y con cualquier Organismo o Entidad radicado en la Comunidad Autónoma.

Asimismo, en su artículo 6.1 reconoce el derecho de todos los ciudadanos a usar tanto el euskera como el castellano en sus relaciones con la Administración Pública en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma Vasca, y a ser atendidos en la lengua oficial que elijan.

Se encuentran vacantes los puestos de trabajo singularizados del Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa y Auxilio Judicial del Servicio Común Procesal General y de las Unidades Procesales de Apoyo Directo de los partidos judiciales de Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika y Tolosa de la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV 14 de abril de 2011) dotados presupuestariamente y cuya provisión se estima conveniente en atención a las necesidades del servicio.

Por tanto, procede su convocatoria en concurso específico, de conformidad con lo establecido en el Título VIII de la Ley 19/2003, de 23 de diciembre, que modifica la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial, y en el artículo 43 y siguientes y Disposición Derogatoria Única del Reglamento de Ingreso, Provisión de Puestos de Trabajo y Promoción Profesional del personal funcionario al servicio de la Administración de Justicia aprobado por Real Decreto 1451/2005, de 7 de diciembre.

Horregatik guztiagatik, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuarekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.– Deialdia.

I. eranskinean zerrendatuta dauden lanpostuak betetzeko berariazko lekualdatze-lehiaketara deitzea, Bulego Judizial Berria ezartzeko legeria prozesala erreformatzeko Legearen osagarria den azaroaren 3ko 1/2009 Lege Organikoaren bigarren artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Bigarren artikulua.– Eska daitezkeen lanpostuak.

1.– Lehiaketan parte hartzen duten funtzionarioek I. eranskinean bilduta dauden lanpostu hutsen artetik edozein eskatu ahal izango dute, betiere eskabideak aurkezteko amaiera-datan eskatzen diren baldintza orokorrak eta bereziak betetzen badituzte, parte hartzen dutenean dauden Kidego edo Eskalan duten egoera administratiboa barne, eta deialdiari buruzko behin betiko ebazpena ematen den arte eusten badiete.

2.– Lanpostu huts horiek I. eranskinean jasota dauden lanpostu kodea eta dotazio zenbakiaren arabera identifikatuko dira.

3.– Lehiaketan parte hartzen duten funtzionarioek ziurtatu beharko dute eskatzen dituzten lanpostuak zuzen identifikatu dituztela, izan ere, eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren ez da egindako eskaeraren aldaketarik ezta, esleipenaren kasuan, uko egiterik ere onartuko.

Hirugarren artikulua.– Parte hartzeko eskakizunak eta baldintzak.

1.– Baldintza orokorrak:

1.1.– Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute eta Justizia Administrazioaren Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoen hutsik dauden eskakizun bereziko lanpostuak eskatu ahal izango dituzte, bakarrik eta aldi bakar batean, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika eta Tolosako barruti judizialetan destino duten kidego edo eskala horietako funtzionarioek baldin eta deitutako lanpostuak betetzeko berariazko baldintzak betetzen badituzte.

1.2.– Destinoko zentro horretara behin-behinean atxikita dauden funtzionarioek parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan behin betiko destinoa lortzeko, beti ere deialdiaren xede diren lanpostuak betetzeko beharrezkoak diren baldintza orokor eta bereziak betetzen badituzte.

2.– Baldintza bereziak:

Por todo ello, de conformidad con el Decreto 472/2009, de 28 de agosto, de Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública,

RESUELVO:

Artículo primero.– Convocatoria.

Convocar concurso de traslado específico para la provisión de los puestos que se relacionan en anexo I, conforme a lo dispuesto en el artículo segundo de la Ley Orgánica 1/2009, de 3 de noviembre, complementaria de la Ley de reforma de la legislación procesal para la implantación de la nueva Oficina Judicial.

Artículo segundo.– Puestos que se pueden solicitar.

1.– Los funcionarios participantes podrán solicitar cualquiera de las plazas incluidas en el anexo I, siempre que reúnan los requisitos generales y específicos exigidos en la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes y los mantengan todos, incluida la situación administrativa en el Cuerpo o Escala desde el que participa, hasta la resolución definitiva del concurso.

2.– Dichas vacantes se identificarán por el código de puesto y el número de dotación recogidos en el anexo I.

3.– Los funcionarios que participen en el concurso deberán asegurarse de que han identificado correctamente los puestos que solicitan, ya que transcurrido el plazo de presentación no se admitirá ninguna modificación a la solicitud formulada ni renuncia en caso de adjudicación.

Artículo tercero.– Requisitos y condiciones de participación.

1.– Requisitos generales:

1.1.– Podrán tomar parte en el presente concurso y solicitar los puestos de trabajo singularizados vacantes de los Cuerpos o Escalas de Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa y Auxilio Judicial de la Administración de Justicia, en exclusiva y por una sola vez, los funcionarios pertenecientes a dichos Cuerpos o Escalas en el partido judicial de Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika y Tolosa donde tengan su destino, que reúnan los requisitos específicos para la cobertura de los puestos convocados.

1.2.– Los funcionarios que se encuentren adscritos con carácter provisional en ese centro de destino podrán participar en este concurso para la obtención de un destino definitivo, si reunieran los requisitos generales y específicos necesarios para el desempeño de los puestos objeto de convocatoria.

2.– Requisitos específicos:

Parte hartzen duten funtzionarioek lortu nahi duten deialdi honen xedekoak diren lanpostuak betetzeko eskatzen den euskara ezagutzaren baldintza bete behar dute eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean. Horretarako, lanpostu bakoitzak ezarrita duen hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko dute. Hizkuntza eskakizun horiek deialdiaren I. eranskinean zehaztuta daude, Lanpostuen Zerrendan xedatuta dagoenaren arabera.

Laugarren artikulua.– Baremoak.

Lanpostuak emateko merezimenduen balioestea antzinatasuna balioesteko ezarritako baremoa –abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 48.1.a) artikulua– eta autonomia erkidegoetako berezko hizkuntza ofizialaren ezagutza [adierazitako artikuluaren b) idatzi-zatian ezarritakoaren arabera] kontuan hartuta gauzatuko da.

1.– Antzinatasuna.– Kidegoan emandako egiazko zerbitzuengatik bi puntu emango dira zerbitzuan emandako urte oso bakoitzeko; epe laburragoak, berriz, proportzioaren arabera zenbatuko dira (0,00555556 egun bakoitzeko). Horretarako, hilabeteak hogeita hamar egunekotzat hartuko dira eta, gehienez, 60 puntu emango dira.

2.– Euskara jakitea.– Plazan jarduteko eskatzen den euskararen ezagutza baino maila altuagoa egiaztatzeak 12 puntura arteko balioa izango du, baina bakarrik ondorio hauetarako.

Adierazitako jakintza hori behar bezala egiaztatu beharko da aurkeztutako tituluaren eta titulu horri dagokion mailaren ziurtagiri ofizialaren edo homologazioaren bitartez. Frogagiri hori eskaerak aurkezteko epearen barruan eman beharko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuan eta adierazitako autonomia-erkidegoaren eremuan ezartzen diren euskararen normalizazio-planetatik eratorritako gainontzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

2. hizkuntza-eskakizuna esleituta duten lanpostuak:

– 3. hizkuntza-eskakizuna: 8 puntu.

– 4. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna esleituta duten lanpostuak:

– 4. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

Aurkezten diren dokumentuak, hizkuntzaren jakintza hori egiaztatzen dutenak, behar bezala konpultsatutako fotokopiak izango dira, eta baldintza hori betetzen ez dutenak ez dira balioetsiko.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean balioetsiko dira merezimenduak.

Los funcionarios participantes deberán reunir en la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes el requisito de conocimiento de euskera exigido para el desempeño de los puestos objeto de esta convocatoria a los que deseen optar, acreditado mediante el perfil lingüístico establecido para cada uno de estos puestos y que, de acuerdo a lo dispuesto en la Relación de Puestos de Trabajo, se específica en el anexo I de la convocatoria.

Artículo cuarto.– Baremos.

La valoración de méritos para la adjudicación de los puestos de trabajo se hará de acuerdo con el baremo establecido para valorar la antigüedad –artículo 48.1.a) del RD 1451/2005, de 7 de diciembre– y el conocimiento de la lengua oficial propia de las Comunidades Autónomas, según lo establecido en el apartado b) del mismo artículo.

1.– Antigüedad.– Por los servicios efectivos en el cuerpo se otorgará dos puntos por cada año completo de servicios, computándose proporcionalmente los períodos inferiores (0,00555556 por día). A estos efectos los meses se considerarán de treinta días y hasta un máximo de 60 puntos.

2.– Conocimiento de euskera: la acreditación de un nivel de conocimiento de euskera superior al exigido para el desempeño de la plaza supone el reconocimiento a estos solos efectos de hasta 12 puntos.

Este conocimiento deberá ser debidamente acreditado mediante la certificación oficial u homologación del título aportado y del nivel al que corresponde el título, que se deberá aportar en el plazo de presentación de solicitudes.

De acuerdo con lo establecido en el Decreto 174/2010, de 29 de junio, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi y demás disposiciones de desarrollo derivadas de los planes de normalización del euskera que puedan dictarse en el ámbito de la citada Comunidad Autónoma se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

Los puestos que tenga asignado Perfil Lingüístico 2:

– Perfil Lingüístico 3: 8 puntos.

– Perfil Lingüístico 4: 12 puntos.

Los puestos que tenga asignado Perfil Lingüístico 3:

– Perfil Lingüístico 4: 12 puntos.

Los documentos que se aporten, acreditativos de estos conocimientos de idioma, deberán ser fotocopias debidamente compulsadas, no valorándose los que no cumplan este requisito.

Los méritos se valorarán a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Bosgarren artikulua.– Eskabideak aurkezteko ereduak eta epeak.

1.– Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika eta Tolosako barruti judizialetako Zerbitzu Orokor Prozesal Erkidearen eta Zuzeneko Laguntza emateko Unitate Prozesalen Justizia Administrazioaren Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoen lanpostuetan behin betiko destinoa duten funtzionarioek baita destinoko zentro horretan behin-behineko destinoa dutenek bere eskaera aurkeztuko dute Agindu honetako II. eranskineko ereduari jarraituz. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2011ko maiatzaren 6an amaituko da.

Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariari zuzenduko zaizkio eskaerak, bai Gasteizko, Donostiako edo Bilboko EATko sarrera-erregistroan bai Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko Erregistro Orokorrean (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

2.– Eskabideak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38. artikuluan aurreikusitako moduan ere igorri ahal izango dira.

Posta-bulegoetan aurkezten direnak ondoren adierazitako bi eratako edozeinetan bidali ahalko dira:

a) Posta arruntaren bitartez; kasu horretan, eskaeren Gasteizko, Donostiako edo Bilboko EATetako erregistroaren edo Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailekoaren sarrera-data eskariak aurkezteko epea amaitu aurretikoa izan beharko da.

b) Posta ziurtatuaren bitartez; kasu horretan, posta-bulegoetan gutunazal irekian aurkeztuko dira, postako funtzionarioak data eta zigilua jartzeko igorri aurretik. Lehiaketan parte hartuko dutenek posta-bulegoaren zigilua duen eskaria igorri beharko dute, eta eskariak aurkezteko epea amaitutakoan ez da onartuko baldintza hori betetzen ez duen eskaririk, nahiz eta ondoren egiazta daitekeen egoera hori.

3.– Lehiaketa honetan parte hartzen duen funtzionario bakoitzak eskaera bakarra egin ahal izango du.

4.– Eskariak aurkezteko epea igarotakoan, egindako eskaera loteslea izango da eskatzailearentzat, hau da, eskaria ezin izango da aldatu. Norbaitek bere eskabidea zuzendu nahi badu beste eskabide bat aurkeztu ahal izango du, eskabideak aurkezteko epearen barruan, eta azken eskabideak aurrekoa automatikoki ezeztatuko du.

Eskariak onartzeko epea amaitu aurretik soilik egin ahal izango zaio uko lehiaketan parte hartzeari.

Artículo quinto.– Modelos y plazos de presentación de solicitudes.

1.– Los funcionarios destinados definitivamente en puestos de trabajo de los Cuerpos y Escalas de Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa y Auxilio Judicial de la Administración de Justicia en los partidos judiciales de Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika y Tolosa, donde tienen su destino, así como los que se encuentren destinados provisionalmente en dicho centro de destino, presentarán su solicitud conforme al modelo del anexo II de esta Orden. El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el día 6 de mayo de 2011.

Las solicitudes deberán ir dirigidas a la Directora de la Oficina Judicial y Fiscal, en el Registro de Entrada de la EAT de Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián o Bilbao o en el Registro General del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco, c/ Donostia-San Sebastián, 1 (01010 Vitoria-Gasteiz).

2.– Las solicitudes podrán remitirse también en la forma prevista en el artículo 38 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Las que se presenten en las oficinas de correos se enviarán en cualquiera de las dos modalidades siguientes:

a) Por correo ordinario, en cuyo caso habrá de tener entrada en el Registro de las EATs de Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián o Bilbao o del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco, antes de la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias.

b) Por correo certificado, en cuyo supuesto se presentarán en las oficinas de correos en sobre abierto para ser fechadas y selladas por el funcionario de correos antes de ser remitidas. Los participantes en el concurso deberán enviar la instancia que contenga el sello de la oficina de correos, sin que pueda admitirse pasado el plazo de presentación de instancias aquella que no cumpla este requisito, aunque posteriormente se pudiera acreditar tal extremo.

3.– La solicitud para tomar parte en este concurso será única para cada funcionario participante.

4.– La solicitud formulada será vinculante para el peticionario una vez transcurrido el período de presentación de instancias, en el sentido de que no será posible modificar la misma. Si alguien desea rectificar su instancia podrá presentar una nueva solicitud, antes de la finalización del plazo de presentación de instancias, la cual anulará automáticamente la presentada anteriormente.

Solamente se podrá renunciar a la participación del concurso antes de la finalización del plazo de admisión de instancias.

Seigarren artikulua.– Eskaerak baloratzea.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren Aginduaren bitartez, berariazko merituak baloratzeko eratuko den Balorazio Batzordean deialdia egiten duen Administrazioaren ordezkariak izendatuko dira. Horien artean, batzordeburua eta idazkaria izendatuko dira.

Dagokion alorrean ordezkari gehien duten sindikatuek bi ordezkarirekin hartuko dute parte Batzorde honetan.

Batzorde hauetako kide guztiek deitutako lanpostua atxikita dagoen titulazio maila bera edo goragoko kidegokoa behar dute izan.

Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzak parte-hartzaileek parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten aztertuko du eta Balorazio Batzordeari laguntza emango dio merituak baloratzeko, parte-hartzaileen espediente pertsonalean dauden datuen eta hauek, eskariak aurkezteko epean, aurkezten duten dokumentazioaren arabera.

Zazpigarren artikulua.– Esleipenak.

1.– Lanpostuak emateko lehentasun-hurrenkera deialdi honetako Laugarren Artikuluan ezarritako baremoen arabera lortzen den guztizko puntuazioak emango du.

2.– Guztizko puntuazioan berdinketarik izanez gero, mailaren irizpidea hartuko da kontuan ebazteko.

Zortzigarren artikulua.– Behin-behineko ebazpena.

1.– Deialdi hau behin-behinean ebatziko da eta aldi berean argitaratuko da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako EATetako iragarki-tauletan eta web orrian (www.justizia.net).

Behin-behineko ebazpena ematearekin batera, baztertuen zerrenda jarriko da leku horietan, baztertzeko kausak azalduta.

2.– Onartuen behin-behineko ebazpenean honako datu hauek azalduko dira: destinoa eman zaien interesdunen jatorriko lanpostua eta herria, baremazioa eta eman zaion behin-behineko lanpostua.

3.– Onartuen eta baztertuen behin-behineko Ebazpenaren aurka alegazioak egin ahal izango dira egutegiko hamar eguneko epean, zerrenda hori web orrian eta adierazitako iragarki-tauletan argitaratzen denetik zenbatzen hasita; horretarako, epe horretan berariazko dokumentu-froga eta zegokion egunean aurkeztu zuten fotokopia zigilatua aurkeztu beharko dute –hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 71.1 artikuluan ezarritakoaren arabera– Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailaren aurrean.

Artículo sexto.– Valoración de las solicitudes.

Mediante Orden de la Consejera de Justicia y Administración Pública se designarán los miembros que representan a la Administración convocante en la Comisión de Valoración constituida para la valoración de los méritos específicos, entre los que nombrará al Presidente y Secretario.

Las organizaciones sindicales más representativas en el ámbito correspondiente participarán en esta Comisión con dos miembros.

Todos los miembros de estas comisiones deberán pertenecer a cuerpos para cuyo ingreso se exija igual o superior titulación al que esté adscrito el puesto convocado.

La Dirección de la Oficina Judicial y Fiscal analizará el cumplimiento de los requisitos de participación por parte de los solicitantes y asistirá a la Comisión en la valoración de los méritos, conforme a los datos que obran en el expediente personal de los participantes y a la documentación que éstos aporten en el plazo de presentación de solicitudes.

Artículo séptimo.– Adjudicaciones.

1.– El orden de prioridad para la adjudicación de los puestos de trabajo vendrá dado por la puntuación total obtenida según los baremos establecidos en el artículo cuarto de esta convocatoria.

2.– En caso de empate en la puntuación total, se acudirá al criterio de escalafón para dirimirlo.

Artículo octavo.– Resolución Provisional.

1.– La presente convocatoria se resolverá provisionalmente y se publicará simultáneamente en los tablones de anuncios de las EATs de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y en la página web www.justizia.net.

Simultáneamente a la resolución provisional de admitidos se expondrá en dichos lugares la relación de excluidos, con las causas de exclusión.

2.– La resolución provisional de admitidos expresará el puesto de origen y localidad de los interesados a quienes se les adjudique destino, la baremación y el puesto provisionalmente adjudicado.

3.– Contra la resolución provisional de admitidos y excluidos, cabrá formular alegaciones en el plazo de diez días naturales desde su publicación en la página web y en los tablones de anuncios referidos, para lo cual deberán aportar en dicho plazo la prueba documental oportuna y fotocopia sellada de la instancia que presentaron en su día, todo ello de acuerdo con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, ante el Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco.

Adierazitako epean erreklamaziorik egiten ez bada, ulertuko da eskatzailea ados dagoela eta bildutako datuak, baremazioa eta behin-behinean emandako destinoa onartzen dituela.

Ezin izango dira inola ere zuzendu eskabideetan deialdi-hurrenkerako zenbakiei buruzko transkripzio akatsak, deialdi honetako 2.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, behin-behinean emandako destinoek ez dute eskura litekeen eskubiderik ematen lehiaketaren behin betiko ebazpenari dagokionez.

Bederatzigarren artikulua.– Behin betiko ebazpena.

1.– Alegazioak ebatzi ondoren, deialdi hau Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren agindu batez ebatziko da behin betiko.

2.– Agindu hau Estatuko Aldizkari Ofizialarekin batera argitaratzea lortzen ez bada, epeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasiko dira kontatzen.

Hamargarren artikulua.– Emandako destinoen nondik norakoa.

1.– Lehiaketa honen ebazpenaren ondoriozko lekualdatzeak borondatezkotzat hartuko dira zerbitzuagatiko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan aurreikusitako ondorioetarako.

2.– Emandako destinoei ezin izango zaie uko egin.

Hamaikagarren artikulua.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari hilabeteko epean edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzitegiko Gasteizko Epaitegian bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri zenetik hilabetera esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, errekurtsoa ezetsi egin dela esan nahiko du. Orduan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, aipatutako moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 15a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

De no reclamarse en el plazo establecido, se entenderá que muestra su conformidad y aceptación de los datos contenidos, de su baremación, y el destino provisionalmente adjudicado.

En ningún caso serán susceptibles de corrección los errores de trascripción en las solicitudes relativos a los números de orden de convocatoria, de conformidad con lo establecido en el artículo 2.3 de la presente convocatoria.

En cualquier caso, los destinos asignados provisionalmente no suponen expectativa de derecho respecto a la resolución definitiva del concurso.

Artículo noveno.– Resolución definitiva.

1.– Una vez resueltas las alegaciones, la presente convocatoria se resolverá definitivamente por Orden de la Consejera de Justicia y Administración Pública.

2.– Si no se lograra la simultaneidad de publicación de la Orden con el Boletín Oficial del Estado, los plazos se computarán desde el día siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo décimo.– Carácter de los destinos adjudicados.

1.– Los traslados que se deriven de la resolución del presente concurso tendrán la consideración de voluntarios a los efectos previstos en el Decreto 16/1993 de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón del servicio.

2.– Los destinos adjudicados serán irrenunciables.

Artículo undécimo.– Recursos.

Contra la presente convocatoria podrá interponerse recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes ante la Consejera de Justicia y Administración Pública o recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Si transcurriese un mes desde la interposición del recurso potestativo de reposición sin que recaiga resolución expresa, se entenderá desestimado el mismo, pudiéndose interponer recurso contencioso administrativo en los términos citados anteriormente.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de abril de 2011.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.

I. ERANSKINA

Saila: Justizia eta Herri Administrazioa

Kudeaketa Atala: Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritza

Destino Zentroa: ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa – Balmaseda

Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Lanpostu mota	Herria	Beteteko era	Taldea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Berariazko ezaguera	H.E.	Hizkuntza-bereziatasunaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berariazko osagarria	Oharrak
